



Miranda de Ebrotik Maulera, euskaltegietako 1.200 ikaslek ezagutuko dute bertsozaritza Txapelketaren bidez

Txapelketa Nagusiaren olatu horren uhinak euskara ikasleengana ere iristea nahi izan dugu. Euskararen murgiltzeko pausoa ematen ari direnei bertsozaritzaren atea irekitzeko; euskal kulturara erakartzeko; euskarazko jendarte horretan beren aukia hartzeko.

42 saio didaktiko 29 euskaltegitako 1200 ikaslerentzat

Finalurreko saioak jokatu diren herriak hartu, eta inguruko euskaltegiei Txapelketa Nagusiari buruzko saio didaktikoak egiteko aukera eman zaie. Euskal Herriko 5 herrialdetan 42 saio didaktiko egingo dira eta 29 euskaltegi eta 1.200 ikaslek parte hartuko dute ekimenean.

Entzulearen aukitik Txapelketako saioa

jarraitu ahal izateko heldulekuak emango ditu lehenik bertsozari batek, euskaltegian bertan. Aldez aurretik irudikatuko dute gero zuzenean biziko duten saio horren egitura eta errituala, ariketa bakoitzaren berezitasunak zein diren, nor diren bertsozari horiek, bertso bat jarraitu ahal izateko ulermen estrategiak, zein momentutan irten eta sartu daitezkeen aretotik... Bertsozaritza munduko ahozko inprobisazio kantatuen artean kokatuko dute, eta Txapelketak duen tradizioa eta gainerako plazen artean betetzen duen lekua landuko dute.

Bertsozariak irakasle

Euskaltegietan saio didaktikook eskainiko dituztenak, herrialde bakoitzean euskalduntze mugimenduz harremana

izan duten bertsozariak dira: Ainhoa Aranburu, Xabi Paya, Beñat Vidal, Ruben Sanchez, Joanes Etxebarria, Amaia Agirre, Ainhoa Agirreazaldegia, Arkaitz Oizartzabal "Xamoa" eta Jokin Labayen.



ALAIIA MARTIN
2013/10/12 Lekunberri

Gaia: Bertso-saio honetarako kartelak jartzen ari ginela bi komentario iritsi zitzaizkigun belarrietara. Batek esaten zuen hauxe: "zergatik beti emakume bat?". Eta besteak: "eta zergatik aurten emakume bakarra?"

Arkaitzen dei bat jasota nator gaur Lekunberrira bertsoak harrera ona izaten duen tokira baina badago duda bat zuen begitatik begira: "neska hori gaur kantatzen zeri eskerrak ari da?" Hori demonstratzea da daukadan espektatiba galderak mila dauzkagu generoaren harira... Galderak dauzkagu baina erantzunak behar dira.

Emakumea ari da mila esparrutan suspertzen nahiz batzuetan zauriak barruan zaizkigun lehertzen desberdintasuna non den ez da hain erraza ulertzen ezberdintasunak berdin egiten gaitu hain zuzen. Ez nabil besteen ahotik paper jakin bat betetzen ta duda bat sortu ohi zait nahiz ez naizen haserretzen: mutilak zergatik dauden nola ez duten galdetzen.

ARABA.

- Miranda de Ebrotik Hizkuntza Eskola Ofiziala
- Gasteiz: Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala, Udaberria euskaltegia, AEK Zadorra euskaltegia, AEK Arana euskaltegia, AEK Aixiria euskaltegia, IKA euskaltegia.
- Murgiala AEK euskaltegia.

ZUBEROA. Xiberuko AEK Gau eskola (Maule).

NAFARROA.

- Elizondoko Suinko AEK euskaltegia eta IKA.
- Iruñea: Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala, AEK Irintzi euskaltegia, AEK Iruñezar euskaltegia.

BIZKAIA.

- Gernikako AEK euskaltegia.
- Durangoko Udal euskaltegia
- Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala
- Barakaldoko Udala
- Bilboko Zenbat Gara Elkartearen Gabriel Aresti euskaltegia
- Portugaleteko AEK euskaltegia.

GIPUZKOA.

- Oiartzun: Intxixu AEK euskaltegia
- Pasaia: Antxoko Txirrita AEK euskaltegia, Pasaia Udal Euskaltegia.
- Errenteriko Udal Euskaltegia, Xenpelar AEK euskaltegia.
- Lezo: Oroitzene AEK euskaltegia.
- Iruno AEK euskaltegia
- Lazkao: Maizpide euskaltegia
- Ordiziako AEK euskaltegia
- Donostia: Antiguako AEK euskaltegia, Urrats euskaltegia, Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala.
- Bergarako udal euskaltegia.

Bi itzulitara izango dira bertsolari txapelketa nagusiko finalaurrekoak

Bigarren fasera ailegatu da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Kanporaketetik 18 bertsolari sailkatu dira, eta horiei batu zaizkie orain dela lau urteko sei finalista. Horiek guztiek finalaurrekoetan parte hartuko duen 24ko taldea osatu dute.

Aurreko Txapelketa Nagusian bezala, finalaurrekoak bi itzulitara jokatu dira. Lehenengo fasean lau saio jokatu dira eta bigarrenean, hiru. Batetik bestera 18 bertsolari sailkatu dira: finalaurrekoetako lehen faseko saioetako lau irabazleak eta puntuaziorik altuenak lortzen dituzten beste 14 bertsolariak.

Finalaurrekoetako bigarren itzulia hiru saiotan jokatu da. Lehen eta bigarren itzulian lortu dituzten puntuazioak batu egingo dira eta bi itzulietan puntuazio metatu altuena duten zazpi bertsolariak finalerako sailkatuko dira.

Finalaurrekoak. Lehen itzulia

Azaroak 9, Gernika-Lumo: Amets Arzallus, Jokin Uranga, Jon Martin, Jone Uria, Julio Soto, Nerea Elustondo.

Azaroak 10, Tolosa: Amaia Agirre, Etxahun Lekue, Igor Elortza, Iñigo Mantzizidor "Mantxi", Jexux Mari Irazu, Unai Iturriaga.

Azaroak 16, Oiartzun: Agin laburu, Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Beñat Lizaso, Jon Maia, Odei Barroso.

Azaroak 17, Murgia: Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Fredi Paia, Sustrai Colina, Unai Agirre, Xabier Silveira

Finalaurrekoak. Bigarren itzulia

Azaroak 23, Elizondo

Azaroak 24, Donostia

Azaroak 30, Maule-Lexarre

Finala prestatzen

Abenduaren 15ean BEC-en jokatu den finalari begira kontutan hartu beharreko hainbat kontu:

Sarrerak irailean jarri ziren salgai eta martxa onean ari dira saltzen, hortaz ez azken momenturako utzi. Horiek eskuratzeko bi modu daude: www.bertsosarrerak.eu webgunea eta Euskal Herri osoan dauden salmenta guneetan (zerrenda osoa www.bertsozale.com-en aurkituko duzue).

Finalera autobusez joateko aukera eskaintzen du Elkarteak. Hamabost linea antolatu dira Euskal Herri osotik. Webgunean aurkituko dituzu horren gaineko xehetasunak.

BEC-en bazkaltzeko bi aukera izango dituzue bertsozaleek. Batetik, mahaiak eta aulkiak izango dira bertan etxetik eramandakoak jan ahal izateko. Bestetik, aurrez txartela hartuta, bertan prestatutako bazkaria jan daiteke.

Finalaurrekoak zuzenean ETBn

Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiaren jarraipen zabala egiten ari da ETB. Hala, finalaurreko guztiak zuzenean emango dituzte: EAEn ETBSat-en ikusi ahal izango dira eta Nafarroan eta Iparraldean ETB1en. Aitzol Barandiaran eta Josu Goikoetxea ariko dira aurkezle eta iritzi-emaile lanetan. Finala ere osorik eskainiko du ETBk.

Hitzetik Hortzeraren 25. denboraldia

Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruzko saioen ondoren, aste honetan itzuliko da Hitzetik Hortzera bere ohiko lanetara. Aurtengoan 25. denboraldia izango du pantaila txikian eta apirilera bitarte plazaz plazako jardunaren jarraipen zuzena egingo du.



Bertsolari Txapelketa Nagusia.//Alberto Elozegi

Finalaren antolakuntzarako laguntzaileak behar dira

Bertsolari Txapelketa Nagusia aurrera eramateko borondatezko kideen laguntza ezinbestekoa da. Saioz saio tokian tokiko bertso-eskoletako kideak ari dira borondatez antolakuntzan laguntzen.

Abenduaren 15ean, finalean, BECen borondatez lanean aritzeko 250 lagun beharra izango du Bertsozale Elkarteak eta, bertsozaleoi deialdia luzatu nahi dizuegu, bertan aritu nahi izanez gero, ongi etorriak izango zarete eta.

BECen gurekin lanean aritzeko prest bazaude, bidali mezu bat helbide elektronikoa honetara: bizkaia@bertsozale.com

Oharra: legediak hala eskatzen duelako 18 urte beteta izan behar dira.

Munduko kantu inprobisatuari buruzko jardunaldiak Mintzolan

Bertsolaritzaren inguruan ikerketa bat baino gehiago dago martxan uneotan, eta Munduko Kantu Inprobisatua ezagutzeko esperientziak ere izan dira azken aldian. Horien berri emateko asmoz eta ikerketan eragin nahian, Kulturarteko Jardunaldiak antolatu ditu Mintzola Fundazioak. Denera 16 hitzaldi izango dira abenduaren 13ra bitartean.

2003an antolatu zituen Kulturarteko Topaketak Bertsozale Elkarteak. Orduetik hona, dena den, munduko kantu inprobisatuak ezagutu nahian aritu gara, eta harremanak izan ditugu herrialde bat baino gehiagoko sortzaile, ikertzaile eta eragileekin. Horrez gain, uneotan bertsolaritza alor ezberdinetako begiradez aztertzeke ikerketa ugari daude martxan. Bi ardatz horiek elkartuta, jardunaldiak antolatu ditu Mintzola Fundazioak, ikerketen berri eman eta ikerketa berriak eragiteko. Urriaren 9an abiatu ziren jardunaldiok eta abenduaren 13ra bitartean izango da hitzaldi eta emanaldiak jarraitzeko aukera Amasa-Villabonako Subijana Etxean.

Kuba, Mexiko, Katalunia eta Euskal Herriko hizlariak

Denera 17 hizlari pasako dira Subijana Etxeko oholtzatik. Euskaldunak dira Pio Perez, Eric Dicharry, Eli Elixabete Perez, Miren Artetxe, Iñaki Murua, Manex Agirrezabal, Bertol Arrieta, Jexux Larrañaga, Andoni Egaña eta Jon Sarasua. Kataluniatik etorriko dira Anaís Falcó, Christian Simelio eta Pere Bescós. Azkenik, Amerikatik etorriko dira Ana Zarina Palafox mexikarra eta Patricia Tapanes, Haydee Hernandez eta Sonia Perez kubatarrak. Jhon Zemke, Missouri-Columbia Unibertsitateko irakaslea ere bertan izango da hitzaldiak jarraitzen eta finala ikusten.

Kulturarteko terraza zientifikoa Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean

Atzerriko ikerlari, eragile eta sortzaileak Euskal Herrian direnez, bestalde, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera gonbidatuko ditugu. Hala, BECeko finala gertutik jarraitu eta bertsolaritza ezagutzeko aukera ere izango dute.

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren jarraipena

Bestalde, Mintzola Fundazioak bultzatuta, Bertsolari Txapelketa Nagusia aztertuko dute hainbat ikerlarik, nork bere begiradatik.

Arkaitz Goikoetxea, Jone Miren Hernandez, Xabier Paya, Xabier Sukia, Olatz Mitxelena, Teresa del Valle, Jexux Larrañaga, Andoni Egaña, Pio Perez, Pere Bescós, Anaís Falcó eta Christian Simelio, Manex Agirrezabal eta Joxerra Garzia dira adituok. Fase bakoitzaren bukaeran argitaratuko dituzte beraien artikulak www.mintzola.com eta www.bertsozale.com atarietan.



Jardunaldiak.//XZDZ

Datozen asteetako hitzaldiak:

AZAROAREN 6an

19:00etan Manex Agirrezabal eta Bertol Arrieta: "1986-2009 urteen arteko Txapelketa Nagusiaren azterketa".

19:30ean Jexux Larrañaga: "Jolas sakona".

ABENDUAREN 11n

19:00etan Patricia Tapanes: "Lo simbólico y lo social en la poesía oral improvisada cubana".

19:30ean Haydee Hernandez: "La enseñanza de la décima improvisada en niños. Los Talleres Especializados de Repentismo Infantil, una experiencia desde la apreciación y el respeto al arte".

20:00etan Sonia Pérez: "La poesía oral improvisada cubana desde una mirada musicológica. El repentismo cubano como género musical cubano identitario, patrimonio de la nación".

ABENDUAREN 12an

19:00etan Andoni Egaña: "Basarri eta bertsogintza".

19:30ean Jon Sarasua: "Bat-bateko kantuaren ehunaz".

20:00etan Ana Zarina Palafox: "Estilos y formas estróficas de la improvisación en los géneros de músicas tradicionales en México".

ABENDUAREN 13an

19:00etan Anaís Falcó eta Christian Simelio: "Abestiak eta korrondak: Kataluniako Kantu Inprobisatuari buruz solasean".

19:30ean Pere Bescós Prat: "Elementos de interacción en la creación de sentido poético en tradiciones orales: bertsolarismo y poesía homérica".



Puntuajarrita

MILLAN TELLERIA

Kaixo bertsozale:

Ni neurera noa... Nahiz eta ez gauden garairik txarrenean iritziak emateko errimez, josterez, gaien nondik norakoez, bat-batekotasunez edo etxeko lanak oholtzaratzearen balioaz. Hori ez da gure lana, izango da nork egina. Nik, eserialdi batean entzun, gozatu, txalotu eta etxera. Azken batean, aho sabai eta sudur bana denek eta zapoak eta usainak milaka.

"Ai Anjel Mari"... Bagenuen doinu bat horrela bataiatu genuena edo sarri esan izan genuen "Peñakeri" bat edo urtaro honetan norbaitek txori izugarri jarri izango zukeena. Baina, nik beti aitortu dut eta dizuet, gizon argia eta garbia dela, besteenik ez duela bereganatu eta beretik asko eman duela.

Hori bai, guk baino beranduago hartu zuen aitatasuna, perretxiko biltzaile amorratua da, ehiztaria eta oso zelataria. Hainbeste galdetzen eta jakiten du, gero ez zaizkiola denak barruan kabitzen. Sarri esan izan diot leihotik auzora begira eta auzotarrez galdezka ari den norbait bezala irudikatzen dudala.

Baina nire iritziak iritzi edo usteak uste, Anjel Mari Peñagarikano da eta hori bada norbait.

Hala ere bere puntuari erantzunez: "Gure garai haietaz oroitzen al haiz hi?"

Bai, baina ezin denak gaur adierazi, hirea huan egin ez eta galarazi isiltasun saririk ezin irabazi.

Elkarte barruko ezkutuko lanean oso kide leiala izan nuen eta orain gehiago entzutea gustatuko litzaidakeen Jokin Sorozabali jarriko diot puntuak:

"Asko sufritzen al dek albotik begira?"

Koplak

"Beira" taldearen diskoa kalean

Urriaren 25ean aurkeztu da "Beira" taldearen lehen diskoa. Donostiako Dokan. "Beira" taldea Jon Martin bertsolariak eta Igor Arruabarrena musikariak osatzen dute. Lehenak egindako bertso-sortak musikatuta dituzten bigarrenak urtetan zehar eta hau da lanaren emaitza. Kontzertuak Lanku bidez kudeatuko dira. Hurrengo kontzertua Arrigorriagan izango da, azaroaren 1ean "Ez dot sinesten"-en lokalean. Urtarrilaren 3an Donostian Kontadores kulturgunean ariko dira. KDa salgai dago 5 euroko prezioan eta kontzertuetan bertan izango da erosteko aukera.

Poto-Finixa



Txapelketako kronikagilea bere bakardadean

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bertsoaroa ospatzen ari dira Iruñean

Nafarroako Bertsozale Elkarteak urtero antolatzen du Bertsoaroa Iruñeko Udalarekin elkarlanean. Aurten ere egitarau oparoa izango da udazkenean. Urriaren 24an hasi zen aurtengo edizioa eta azaroaren 14ra bitartean izango da zerekin gozatua. Urriaren 24an bertso-saioa izan zen eta Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruzko hitzaldia 29an. Azaroaren 5ean "Ez gara Palestinaz ari" ikuskizun berezia izango da ikusgai; azaroaren 7an eta 14an bertso-saioak eta azaroaren 12an Igelaren Bandaren emanaldia.

Martxan da bertxoko sariketa

Aurten ere, Arabako Bertsozale Elkarteak Hala Bedi Irratiarekin elkarlanean antolatu du Bertxoko Sariketa. Aldaketa batzuekin dator gainera: aurten bertsolariak bikoteka ariko dira kantuan. Denera 12 bertsolari hartuko dute parte 6 bikotetan banatuta. Hilaren 2an hasi da aurtengo sariketa. Hilaren 9an eta 15ean egingo dira hurrengo kanporaketak. Finala, berriz, azaroaren 22an izango da Agurainen, 3 bikoterekin.

URRIA

25

LANKUK 10 URTE. HAMAIIKA ESKAINTZA

Lankuk 10 urte betetzen dituen honetan, jaso duen argitalpenen uzta Bertsozale Elkarteko bazkide guztion esku ere jarri nahi du. Bere produktu gehienak %50eko deskontuarekin eskuragarri izango dituzue, Txapelketa Nagusiko saioetan eta www.lanku.com-en.